



## PRENTSA BULEGOA OFICINA DE PRENSA

### MADRIL, 2011ko apirilaren 5a

Agur solidario bat hemen bildu garen sindikatuetao militanteoi. Azken 35 urteetako politikarik antisozialena salatzen etorri gara, eta aldarrikatzen badagoela beste sindikalismo bat, astakeria hori onartzen ez duena, amore emateko prest ez dagoena. Alternatibak eskaintzen dituen sindikalismoa, mobilizatzeko gauza den sindikalismoa.

**1.- HALA DA. HEMEN GAUDE EZ DUGULAKO LAPURRETA HORREN KONPLIZE IZAN NAHI.** Ordezkatzen dugun mugimendu sindikalak ez du txirotze kolektiboaren konplize izateko asmorik; EZETZ esaten diogu eskubide laboral eta sozialen kontrako atrakoari, kapitalak exijitu eta gobernuek onartzen duten atrako horri.

Zer nolako lapurreta da hau? Gure eskubideek zerikusirik ez duten arren, krisi kapitalista bat baliatzen ari dira berriro errenta transferitzeko, errenta kopuru itzela, gure poltsikoetatik enpresa handien eta bankaren eskuetara.

Ehizean dabilta. Honez gero harrapatu dituzte ale batzuk, baina are gehiago nahi dute. Ekintza politikotik baztertu egin dute enplegua sortzeko helburua. Kaleratzea erraztu eta merkatu egiten duen Erreforma Laboral bat eman diete, enplegu duinen ordezkariak hedatzeko. Iritzi publikoa manipulatu lortu dute Pentsioen Erreforma bat ere; pozez txoratzen daude banketxeen Pentsio-Fondo pribatuak; hauek esan zuten beren negozioa ez zela haziko prestazio publikoek maila 'duin' bati eutsiz gero. Eta orain Negoziazio Kolektiboaren erreforma bat ere nahi dute, soldatei eraso egin, hitzarmenak suntsitu eta langileen ekintza kolektiboa desegiteko.

Gure eskubideak txikitu egiten dituzte, eta aitzakiak erabiltzen dituzte horretarako: merkatuaren arauak, lehiatzeko gaitasuna, erabateko malgutasuna... Traba egiten dien guztia paretik kendu nahi dute, etekinak puztu ahal izateko.

Aurrekontuak historian izan diren injustuenak dira. Gizarte-prestazioak murriztu egiten dituzte: osasungintza, irakaskuntza; enplegua suntsitzen dute... Aurrekontuen abiapuntua argia da: fiskalitatea ez da ukitzen, ezpada aberatsei zergak jaisteko. Aberastasuna ez da ia aintzat hartzen zergen oinarri gisa. Aberatsek ez dute zergarik ordaindu nahi. Noizko Sozietateen Zergaren hurrengo jaisiera?

Gu txirotu, pobretu nahi gaituzte, eta manipulazioa besterik ez dute egiten; gizarte honetan ez dago debaterik, ez alternatibak eztabaidatzerik. Adibidez, defizit publikoa ez da eskubide sozialen, ez soldaten erruz sortzen. Defizita sortzeko beste hainbat arrazoi daude: PPK, PSOEek, PNV, UPNk eta CiUk, deskapitalizatu egin dute fiskalitatea; Espainiako Bankuak eta hurrenez-hurren izan diren gobernuek ekonomia espekulatiboa elikatu dute; banketxei ematen dioten dirutza izugarria; patronalarentzako era guztietako laguntzak (Europako patronalen artean diru-laguntza handienak jasotzen ditu, Europako bizkarroiena da). Hor ditugu arduradunak, baina harrigarria badirudi ere, murrizketa sozialen agenda eurek erabakitzen dute, berea arriskutan egon ez dadin. Horregatik da lapurreta bat, iruzur bat.

**2.- HORI ZERGATIK GERTATZEN DA?** Klase politiko ia gehienaren serbilismoaz baliatzen dira. Katastrofe politiko bat pairatzen ari gara, eta kaltetun asko geratzen da bidean. Ez al da katastrofe bat herritarrek ezin bereizi izatea politika ekonomikoak,



## PRENTSA BULEGOA OFICINA DE PRENSA

Berlusconi, Zapatero, Merkel, Cameron, Sócrates, Patxi Lopez, JL Bilbao edota Markel Olanorenak direla ere...? Hauek guztiek, bakoitzak bere ahalmenen baitan, politika berdina egiten dute. Langileok ez dugu merezi politika antzerki obra bihurtzea, non kapitalak hartutako erabakiak antzezten diren. Ez dugu merezi, eta gizarteko gehiengoaren zerbitzutan dagoen politika bat exijitzen dugu.

Orain Konpetitibitate Ituna dator. Zapaterok dio babesten ez duena ez dela “patriota”. Zer ideologia dago honen atzean? Izugarria da. Ez dezatela gezurrik esan. Estatuak beren borondatez makurtzen dira Batzordearen esanetara, botere ekonomikoaren esanetara dagoen erakunde honek polizia lanak egin ditzan eta politika kontserbadoreak, eskuinekoak berma ditzan. Politika hauek mespretxatu egiten dute enplegua eta elkartasuna; soldatei eraso egiten diete, malgutasun laborala areagotzen dute, zerbitzu publikoak pribatizatu, defizit publikoa legez galarazi... Haien helburua finantza-kapitala eta enpresa handiak asetzea da.

Botere politikoak patronalari eraso jotzeko aukera ematen dio; utzi egiten dio xantaia egiten, lan-baldintzak aldebakarretik erabaki ahal ditzan. Hala da, ez dago ñabardurarik.

**3.- SINDIKATUEN FUNTZIOA.** Sindikalismoak aurpegia ematea beste aukerarik ez du, eta botere politikoa bakarrik utzi behar du. Baina CCOO eta UGT ez dabilta horretan. Pentsioak murrizteko zoritzarreko itun sozial eta ekonomiko patronalarekin eta espainiar gobernuarekin sinatu zuten, eta itun hori Europako Batasunean eskuineko indarrek adibide gisa jartzen dute, estatu guztietara zabaldu nahi lukete, baina sindikatuak ez dute onartzen. Zapatero da murrizketa latzak ezarrita ere babes sindikala duen agintari bakarra. Zein da honetarako trikimailua?

Ez dago “elkarrizketa sozial”ik, ALDEBAKARREKO politikak baizik. Eta lan munduak gezurrezkoak ez diren erreferentziak behar ditu. Ezinezkoa da 44 enpresaburu handi Moncloatik pozik aterata politika soziala eta solidarioa izatea. Hipokrisia hutsa da esatea Ongizate-Estatua defenditzen ari direla, eta bata bestearen atzetik hark aitortzen dituen eskubideak kentzea. Elkarrizketa soziala iruzur bat da, sindikalismoa isilarazteko ondo betetako aska bat. Baina gu ez gaituzte horra eramango.

**4.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO ESKUBIDEA EXIJITZEN DUGU.** Estatua krisiaz baliatzen da gure herrian ekintza politiko, sozial eta sindikalerako tresnak kentzeko. Eta legeak egiteko ahalmena nahi dugu lan-baldintza duin batzuk defenditu ahal izateko. Negoziazio kolektiboko mamari heldzeko: prekarietatea, soldata eskasak, esplotazioa, lanaldi luzeak... Zer sari jasotzen dute CCOOek eta UGTk egiten dutenaren truke? Negoziazio kolektiboaren erreforma bat, beren ordezkartzako monopolioa ekarriko duen erreforma. Horixe ari dira negoziatzen.

Bai, patronalak txirotu egin nahi gaitu eta CCOOek eta UGTk beste sindikatuen eragina gutxitzeko monopolioa lortu nahi dute, gure eragina ahuldu, alegia. Bost axola die horrela lan-baldintzak okertzeak (zentralizazioak edota salbuespen klausulak hori ekarriko du...). Guk non eta zer negoziatzen den erabaki nahi dugu; hori erabakitzeko ahalmena nahi dugu. Eskubide hori ukatuko digun egitura estatal bertikal eta burokratikorik ez dugu onartzen. Ez dugu onartzen guk, gure herrian negoziazio kolektiboa egiteko eskubidea eragotziko duen LOAPA sindikalik. Errespetu



## PRENTSA BULEGOA OFICINA DE PRENSA

demokratikoa exijitzen dugu, gehiengo sindikalek esparru bakoitzean demokratikoki erabaki dezaten.

Hori da gure erabakitzeko esparrua, langileona. Lan-harreman eta gizarte-babeseke euskal esparrua nahi dugu, non negoziazio kolektiboa funtsezkoa den. Horregatik, alderdi politikoei, denei, dei egiten diegu, batik bat erabakitzeko euskal esparrua aldezen dutela diotenei, erreforma honi aurre egin diezaioten. Gai honetan ere patronalaren interesen arrastoan sartzea utzikeria politiko oso larria litzateke, zalantzarik gabe euskal langile-klasearen bizi-kalitateari kalte egingo liokeena.

Eta eskubide bati horrela uko egitea ikusita, euskal sindikalismoak, beste nazioetako sindikalismoak bezala, ezin du isilik geratu.

Besarkada bat guztiontzat. Gora sindikalismoa. Gora borroka sindikala.